

UNESCO ETXEA 02 KOADERNOA:

2030 AGENDA EUSKADIN

2015. urteko Garapen Iraunkorrari buruzko Goi Bileran, NBEko estatu kideek **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda** onartu zuten, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztien oparotasuna bermatzeko helburuarekin. **17 helburu eta 169 xede** biltzen ditu, baita adierazpen politiko bat ere.

errespetatuko dituen garapena lortzeko. 2030 Agenda gero eta ezagunagoa da, eta erakunde publiko eta gizarte eragileek gero eta gehiago onartzen dute, batik bat, erakunde publikoek eta enpresek; dena den, bide luzea geratzen da oraindik **“inor atzean ez uzteko”** konpromisoa egia bihurtzeko, agendaren elementu eraldatzaileenetako bat den aldetik eta, hori gabe, ezein helburu ezin izango litzateke egiaz bete.

Azken urteetan aurrerapen handiak izan dira pobrezia-aren eta bidegabekeriaren aurkako borrokan, baina hala ere, oraindik ere pertsona gehiegi dira —pobreenak, emakumeak, landa ingurunea, baztertuta daudenak, egoera ahulean daudenak eta indarkeria eta diskriminazioa jasateko arriskuan daudenak— desberdintasun izugarriei aurre egin behar dietenak baliabideak eskuratzeko, aukerak izateko eta nor bere eskubideak baliatzeko.



Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) nazioarteko komunitatearen erronka berria dira, **pobrezia desagerraraztea, giza eskubideak** baliatzeko aukera zabaltzea, **genero desparekotasunen** aurkako **borroka** eta beste helburu batzuk (**ekonomikoak, sozialak...**) betetzeko, eta planeta eta planetak eskaintzen dituen baliabideak



UNESCO ETXEAREN LANA

UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991n sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

UNESCO Etxeak Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda osatzen parte hartu du eta, orain, Agendaren ezarpena lortzeko lan egiten du, bai tokiko mailan, bai nazioartean, giza garapen iraunkor eta ekitatiboa lortzearen pertsona guztiontzat. Horretarako, 4 ekintza ildo garatu ditu:

1. Ikertzea eta informazioa ematea 2030 Agendaren gertaera garrantzitsueni buruz eta, horretarako, azterlanak, berriak eta argitalpenak egiten eta ezagutarazten ditugu.

2. 2030 Agenda ezartzeko gakoak diren erakunde eta eragileen gaitasunak indartzea. Horretarako, **sarean lanean ari gara** gizarte zibileko hainbat erakunderekin, sektore pribatuarekin eta administrazio publikoekin, eta prestakuntzako proposamenak eskaintzen ditugu.

3. Hausnarketa eta eztabaida sortzea gizartean, giza garapen iraunkor, bidezko eta ekitatiboa lortzeko konpromisoan. Horretarako, askotariko jarduerak egiten dira, hala nola kanpainak, kaleko ekintzak, jardunaldiak, mahai-inguruak...

4. 2030 Agendan parte hartzea eta intzidentzia indartzea, bai **tokiko mailan**, bai nazioartean.

Jarraian, erakunde honek Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren bitartez egindako hainbat jardun nabarmenduko ditugu, giza garapen iraunkor, bidezko eta ekitatiboa lortzen laguntzen dutenak, eskubideak eta genero ikuspegia aintzat hartuta, pertsona guztiontzat; badakigu ez dela perfektua, baina paradigma hori lortzeko tresna eraginkor, eraldatzaile eta unibertsala da.

DESBERDINKERIARI AURRE EGITEA

Kezka handiz ikusten ari gara erakundearen diskurtsoetan eta gobernuetako planetan ez dituztela egoera ahulean dauden taldeak erdigunean jartzen, eta bereziki talde horiek dira arreta eta baliabideak behar dituztenak; hori horrela izanik, 2019an UNESCO Etxea lanean hasi zen **"Pertsonak erdigunean"** lantaldean, 2030 Agendaren "inor atzean ez uzteko" konpromisoaren esanahiari buruzko ideiak **partekatze, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta ikertzeko, EAEko testuinguruan** eta euskal politika publikoetan.

Talde horretako partaide dira Aldarte, AMUGE, Emakumeak Aniztasunean, **Euskadiko Gazteriaren**



Kontseilua (EGK) eta Munduko Landa Foroa, eta Euskadiko talde ahulak, subjektu politiko aktibo diren aldetik identifikatzea, sakonki ezagutzea eta indartzea du xede, haien ahotsak entzun daitezen eta presio egiteko euskal gizartean eta, bereziki, erabakiak hartzen dituztenengan, euren konpromisoak bete ditzaten.

Horretarako, hainbat ekimen abiarazten ari dira: Euskadin egoera ahulean dauden taldeen egoera aztertzea, txosten bat egitea, komunikazio kanpaina bat egitea egoera ahul horien berri herritarrei emateko, eta erakunde publikoekin hitz egitea egoera horiek guztiak euskal politika publikoetan aintzat har daitezen.

2030 Agendako eragileak aktibatzeke 3 estrategia abiaraziko ditugu proiektu honetan: txosten bakar eta zehatza egitea, erakundeak indartzea eta intzidentzia politikoa. Estrategia bakoitza proiektuan lortu beharreko emaitza bati dagokio.

MOBILIZAZIO SOZIALA

Kaleko ekintzak, jardunaldiak, lehiaketak, erakusketak, kanpainak, dibulgazioko bideoak eta jarduera gehiago, hausnarketa eta eztabaida sorrarazteaz gain, **gizartearen ekintzak sustatzeko** helburuarekin ere, giza garapen iraunkor, bidezko eta ekitatiboaren aldeko konpromisoan.



PRESTAKUNTZA

UNESCO Etxeak hainbat **ikastaro** antolatu ditu administrazio publikoetara, sektore pribatura, unibertsitate ikasleei, gizarte zibilari... zuzenduta, **2030 Agendaren berri izan dezaten hainbat ikuspegitatik** begiratuta (hala nola, giza eskubideak, generoa, kultura, ingurumena...), baita Agenda **ezartzeko estrategien** berri ere.



Garapen Iraunkorrari buruzko 2030 Agendaren hastapenak ikastaroa

HEZKUNTZA FORMALA

Lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeekin eta unibertsitateekin batera lan egiten dugu, irakasleei eta ikasleei prestakuntza emanez, betiere ziklo bakoitzera egokituta.

Ikastetxeetan egiten ditugun tailerren bitartez, **euskal gazteriak** parte-hartze aktiboa eta eraldatzailea izatea sustatzen dugu, **herritar aktibo eta kritikoak izan daitezten**.

Ikasmateria ere sortu dugu, hala nola unitate didaktiko bat: **Garapen Iraunkorrerako Helburuak Ikasgela** – Zu ere parte zara!

ERAKUNDEAK INDARTZEA ETA SARE LANA

Gizarte zibileko erakundeen gaitasunak indartzeko lan egiten dugu, politikan eta gizartean intzidentzia izateko gaitasunak, alegia; eta **haien ahotsak entzutea eta aintzat hartzea** lortu nahi dugu, 2030 Agendaren lorpenez baliatu ahal izan daitezten.

Gainera, EAEko, estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekin **sarean lan eginez** ahaleginak uztartzea eta indartzea lortzen dugu, kontuan hartu gaitzaten eta etengabe ikasi ahal izateko.

AHOLKULARITZA ETA INTZIDENTZIA POLITIKOA

UNESCO Etxearen asmoa Agenda Euskadi osoan ezar dadin ahalbidetzea da, nazioko, eskualdeko eta munduko eremua alde batera utzi gabe. Horretarako, gizarte zibileko askotariko eragileekin hitz egiten du, sektore publikoan eta pribatuan erabakiak hartzeaz arduratzen diren aldetik, eta tokiko, nazioko eta nazioarteko sareetan aktiboki parte hartzen du, intzidentziak eragin handiagoa izan dezan.

Era berean, Agenda Euskadi osoan ezar dadin ahalbidetzeko, UNESCO Etxea euskal eragileekin lanean ari da, publiko nahiz pribatu, aholkuak eta laguntza emanez 2030 Agenda ezartzeko ekimenen garapenean, eta 2030 Agendako balio, printzipio eta tresnak **tokiko prozesu, estrategia eta plan propioetan txertatzeko prozesuan**.



ARGITALPENAK ETA MULTIMEDIA

UNESCO Etxeak hainbat hartzaileri zuzendutako askotariko produktuak sortzen eta ezagutarazten ditu 2030 Agendari eta GIHei buruz, hainbat formatutan: animazioak, argitalpenak, buletin elektronikoa, ikerlanak eta abar.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Lortutako eraginak 2030 Agendako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) erlazionatuta aztertuz gero, honako hauek nabarmenduko ditugu:

4. GIH: emandako prestakuntzari esker, besteak beste, garapen iraunkorra sustatzeko beharrezkoak diren jakintza teoriko eta praktikoak eskuratu ahal izan dituzte irakasle eta ikasleek, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren eta bizimodu iraunkorraren bitartez, giza eskubideen eta genero berdintasunaren bitartez, eta bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatuta.

5. GIH eta 10. GIH: Euskadin egoera ahulean dauden taldeei buruzko egoeraren azterketa egin da, herritarrei zuzendutako komunikazio kanpainak egin dira, eta erakunde publikoekin etengabe hitz egiten aritu gara egoera horiek euskal politika publikoetan aintzat har ditzaten; horri guztiari esker, egoera ahulean dauden taldeen rola indartu da subjektu politiko aktibo diren

aldetik, “inor atzean ez uzteko” konpromisoa egia bihurtze aldera.

12. GIH: ikastaroak eta argitaratu den dibulgazioko materiala oso garrantzitsuak dira jendeak informazio eta jakintza egokiak izan ditzan garapen iraunkorra eta naturarekin harmonian dauden bizimoduak sustatzeko.

13. GIH: erakunde publiko eta pribatuei emandako aholkularitzaren bitartez, klima aldaketarekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako plangintza eta kudeaketa eraginkorrerako gaitasuna areagotzen duten mekanismoak sustatzen dira.

17. GIH: garapen iraunkorraren bidean aurrerapen irmoak lortzeko funtsezkoa da, alde batetik, gizarte zibileko askotariko eragileen artean partekatutako ikuspegi eta xede inklusiboak koordinatzea eta eratzea, sektore publikoan eta pribatuan erabakiak hartzeaz arduratzen diren aldetik, eta, bestetik, EAEko, estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuekin sarean lan egitea.



“Alda dezagun Planetaren norabidea... Mugi zaitez GIH-en alde” kanpaina

“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizarte eraldatzeko” (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkartek koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta “Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen” elkarlanaren esparruan.

Egileak: UNESCO Etxea eta Zabalketa Elkartea

Fotos: UNESCO Etxea, PNUD eta Pixabay

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina D.L. SS-691-2019

UNESCO Etxearen eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.

www.unescoetxea.org www.zabalketa.org

